

ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEA

GAIA: 7/2014

ERABAKIA, EUSKO JAURLARITZAKO (...) ZUZENDARI (...) JAUNAK PLANTEATUTAKO GAIARI BURUZ

1.- 2014ko ekainaren 18an bidalitako mezu elektronikoen baten bidez, Eusko Jaurlaritzako zuzendari interesdunak Etika Publikorako Batzorde honi (aurrerantzean EPB) egindako kontsultan adierazten zuenez, "zuzendari izendatua izan aurretik, eta aurtengo maiatzera arte, (...) titulatu gisa jardun dut 1980tik eta (...) kategoriarekin ia hamar urtean, eta jarduera horren barruan sartzen dira (...) teknikarientzako mintzaldiak eta hitzaldiak emateko (...)rekin egindako jarduera pribatuak eta, halaber, (...).

Aurrekoari erantzen dio kolaboratzen duela "aipatutako kolektibo horien prestakuntzarako DVDak eta paperezko argitalpenak sortzen" eta azpimarratzen du jarduera hori ordaindua dela baina "bi entitate horiekin inolako kontratu-loturarik –ez merkataritzakorik, ez lanekorik, ez bestelakorik- gabe, eta, beraz, inolako ordutegi-loturarik gabe". Aitzitik, kontsultagileak azaltzen duenez, ematen dituen "mintzaldi eta hitzaldiek nahiz kolaborazio teknikoak ez dute ukitzen edo oztopatzen bere ohiko lanaldia, ezta betetzen duen kargu publikoari dagokion dedikazio eskusiboa ere, hori "lanaldian zehar bermatuta geratzen" baita.

Amaitzeko, idazkia bukatzen du ohartaraziz "probablea denez jarduera horrek jarraipena izatea" kontsulta egiten duela, EPB honen iritziz "jarduera ordaindu horrek EJK urratzen ote duen" jakite aldera.

Azken puntu horri dagokionez, interesdunak argudiatzen du: "jarduera hori nire *lehenagoko*, zuzendari izendatua izan baino askoz lehenagoko, *kualifikazio eta jarduera profesionalaren* izenean egitean da" eta ekitaldi akademiko eta prestakuntzako horietan parte-hartzeak "argi eta garbi eta zalantza-biderik gabe, ez du inolako zerikusirik orain betetzen duen kargu publikoarekin."

Idazkian adierazten du, halaber, "(...) martxoaren 3ko 320/2000 Errege Dekretuak, (...) teknikari tituluak ezarri, gutxieneko irakaskuntzak onartu eta irakaskuntza horietara sartzeko proba eta betekizunak arautzen dituenak, nahitaezko gutxieneko irakaskuntzan eman beharreko moduluen artean sartzen duela (...) modulua" eta, horregatik, aipatutako programetan ematen dituen irakaskuntzak akademikoak direla, "izaera bereziko irakaskuntza horien curriculumean sartzen direlako" eta "gai horren errealitate zientifiko-teknikoari lotuak" direlako.

Interesdunaren iritziz, bere egoera babesten du Etika eta Jokabide Kodeko (aurrerantzean EJK) 11.4 ataleko hirugarren puntuaren bukaeran ezarritako salbuespenak, azaldu duen jarduera ekonomikoak ez duelako batere zerikusirik kargu publikoa betetzearekin, ez alderdi materialetik eta ezta denboraren aldetik ere.

2.- EJK-ko 16.4 ataleko bigarren tartekian jasotako komunikazio telematikoko mekanismoak baliatuz, hauxe da EPBk hartutako

ERABAKIA:

I. AURREKARIAK

1.- Etika eta Jokabide Kodea, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak onartua 2013ko maiatzaren 28an egindako bileran, politikaren zentzu etikoa indarberritzeko xedez sortu zen, eta herritarrek beren erakundeetan konfiantza berreskuratzea du jomuga.

Helburu horrekin, Eusko Jaurlaritzako goi-mailako zuzendaritza betearazleko kide diren kargu publikodunei zer jokabide, jarrera eta portaera eska dakizkiekeen zehazten du kodeak, horien jarduerak, publikoak zein pribatuak, bat etor daitezen dokumentu horretan aurrez finkatutako balio, printzipio eta jokabide-estandarrekin. Hori guztia zuzentasuna eta eredugarritasuna sustatzeari begira, Jaurlaritzaren erakunde-irudia babesteko, horren eraginkortasuna sendotzeko eta herritarrek erakundeetan duten konfiantza inola ere ez murrizteko.

.- Etika eta Jokabide Kodea oinarritzko bost balioaren inguruan egituratzen da – Osootasuna, Bikaintasuna, Politika eta kudeaketa bat etorraztea, Lidergoa eta Berrikuntza–, eta funtsezko sei printzipioen gainean: inpartzialtasuna eta objektibotasuna, kudeaketari lotutako erantzukizuna, gardentasuna eta gobernu irekia, onestasuna eta desinteres subjektiboa, errespetua eta eredugarritasuna.

Balio eta printzipioen esparru horretan, jokabide, jarrera eta portaeren katalogo handi bat biltzen du Kodeak, eta horiek guztiek osatzen dute EPBk bere jardunean baliatu beharreko erreferentziazko parametroa, Kodera borondatez atxikitako kargu publikoek gai eta dilema etikoei buruz galdetzen diotenean.

Horri dagokionez, kodeak 16.3 ataleko lehenengo puntuan ezartzen du EPB izango dela "oharpen, kontsulta eta iradokizunak jasotzeko eskumena izango duen organoa. Halaber, kode honetan ezarritako aurreikuspenetan adierazitako egokitzapen-proposamenak gauzatzeko prozedura jasoko du".

II. ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEARI PLANTEATUTAKO GAIA

1.- Interesdunaren kontsultaren gaia (...) teknikarientzako (...)ri buruzko mintzaldiak edo hitzaldiak ematea da, printzipioz, Eusko Jaurlaritzako Zuzendari gisa betetzen duen jarduerarekin zerikusirik ez duen jarduera.

Interesdunak lehen ere egiten zituen era horretako jarduera akademiko eta prestakuntzakoak. Eta, bidali duen idazkian azaltzen duenez, beti jaso izan du ordainsaria jarduera horrengatik baina "bi entitate horiekin inolako kontratu-loturarik –ez merkataritzakorik, ez lanekorik, ez bestelakorik- gabe, eta, beraz, inolako ordutegi-loturarik gabe; aitzitik, mintzaldi eta hitzaldiek nahiz kolaborazio teknikoak ez dute ukitzen edo oztopatzen ohiko lanaldia, ezta betetzen duen kargu publikoari dagokion dedikazio eskusiboa ere, hori lanaldian zehar bermatuta geratzen baita".

Izan ere, (...) den aldetik parte hartzen du lan horietan, horretarako behar den titulazio ofiziala izanik, 1980tik orain arte aritu delako etengabe jarduera horretan. Interesdunak defendatzen du jarduera horiek EJK-k babesten dituela 11.4 ataleko hirugarren puntuaren bukaeran ezarritako salbuespenean, honela baitio puntu horrek Kodeari atxikitako goi-karguei buruz: "Inoiz ere ez dute onartuko diruzko edo gauzazko saririk hitzaldiak emateagatik edo eztabaidetan parte hartzeagatik, **jarduera bere kualifikazioen edo aurretiazko lanbide-jardueren arabera gauzatzen ez bada, eta ekitaldi horretan parte hartzearen xedeak batere zerikusirik ez badu kargu publikoa betetzearekin**". Bere iritziz, "karguarekin batere loturarik ez izatearen baldintza erabat betetzen da, bai alderdi materialari dagokionez eta baita denborari dagokionez ere". Hala ere, prebentzioz, EPB honi badaezpada kontsulta egitea erabaki du, jarduera horiengatik ordainsaria jasotzea EJKn xedatutakoarekin bat datorren ala ez azter dezan eta gaiari buruzko irizpena eman dezan.

3.- Komeni da adieraztea, batzorde honek aztergai duen gaia zehazki aztertzeari ekin aurretik, EJK-k interes-gatazkekin lotutako jokabide, jarrera eta portaera batzuk aurreikusten dituen arren, kargu publikodunen jardueretan gai horrekin lotutako dilema etikoek duten garrantzia kontuan hartuta, arlo horretan indarrean dagoen araudia –eta, zehazkiago, kargua hartu aurretik edo ondoren jarduera jakin batzuk egiteari dagokiona– jasota dagoela Eusko Jaurlaritzako goi-kargudunen eta parekatuen bateraezintasun-araubideak berariaz erregulatzen dituen arau juridikoan; horretan, diziplina- eta zigor-erregimen bat ezartzen da, legezketasun-printzipioari jarraituz lege-mailako testu batean erregulatzen dena.

4.- Horrenbestez, EPBri ez dagokio ebaztea ea legezko bateraezintasuna dagoen Eusko Jaurlaritzako zuzendari izatearen eta, aditu den aldetik, interesduna jarduera akademikoetan, irakaskuntzan edo argitalpenean aritzearen artean. Aitzitik, EPBri dagokio ebaztea ea interesduna horrelako jardueretan aritzea eta ordain ekonomikoa kobratzea bat datorren EJKren oinarrizko balio, printzipio, jokabide eta portaerekin. Aurrekariei buruzko atalean azaldu dugunez, EJKren helburua da politikaren zentzu etikoa berreskuratzea, euskal

herritarrek beren erakundeengan duten konfiantza sendotzeko; zehazki, Eusko Jaurlaritzaren eta hango arduradun politikoek eguneroko jardunean dutena.

5.- Horren ondorioz, interesdunaren jarduna EJKn aurreikusitako balio, printzipio, jokabide, jarrera eta portaerekin bat datorren edo ez erabakitzea mugatuko da soilik Etika Publikorako Batzorde hau, eta Funtzio Publikoko Zuzendaritzari egokituko zaio erabakitzea, hala behar izanez gero, aitortzeko eskatzen den jarduera akademikoaren eta interesdunaren kargu publikoan jardutearen artean legezko bateraezintasunik dagoen edo ez, hala xedatzen baitu apirilaren 9ko 188/2013 Dekretuak, Herri Administrazio eta Justizia Sailaren egitura organikoak eta funtzionala ezartzekoak, 16. artikuluan.

6.- Hau ezartzen du EJK-k 11.4 ataleko hirugarren paragrafoan Kodeari atxikitako goi-karguei buruz: "Inoiz ere ez dute onartuko diruzko edo gauzako saririk hitzaldiak emateagatik edo eztabaidetan parte hartzeagatik, *jarduera bere kualifikazioen edo aurretiazko lanbide-jardueren arabera gauzatzen ez bada, eta ekitaldi horretan parte hartzearen xedeak batere zerikusirik ez badu kargu publikoa betetzearekin*".

7. Interesdunaren idazkia aztertu eta edukia egiaztatu ondoren, **aski frogaturik gelditu da**, EJKn ezarritakoaren ondorioetarako —ez baita EPB honen lana interesdunaren irakaskuntza-, ikerkuntza- eta argitalpen-ibilbidearen kalitate zientifikoa beste ondorio batzuetarako aztertu edo alderatzea—, aipatutako ikastaroak "**lehendik zituen kualifikazio eta jarduera profesionalengatik**" **ematen dituela**, eta kualifikazio horien jabe zela eta jarduera horietan ziharduela Eusko Jaurlaritzako zuzendari izendatu aurretik.

Kontsultagileak bere idazkian adierazten duenez, egiten duen jarduera akademikoa bere lehengo gaitasun profesionalari zor dio —goi-kargu izendatu aurrekoari.

Bestalde, argi gelditu da gai horretako aditu gisa ekitaldi akademikoetan, prestakuntza-programetan eta inguruko gaietako sorkuntza teknikoko kolaborazioetan parte hartzeak **argi eta garbi eta zalantza-biderik gabe, ez duela inolako zerikusirik orain duen kargu publikoa betetzearekin**.

8.- Emandako azalpenetatik ondorioztatzen da, interesduna aditu ezaguna denez gai horretan, aipatutako ikastaroetan "parte hartzearen xedeak" ez duela "batere zerikusirik" Eusko Jaurlaritzako zuzendari gisa "kargu publikoa betetzearekin". Eta ez du zerikusirik, lehenik eta behin, interesdunak egiaztatzen duelako alegatutako jarduera akademikoa eta horrek dakarren onarpena kronologikoki aurreragokoak direla Eusko Jaurlaritzako goi-kargu izatera iristea baino, eta hori osoki doitzen zaio aipatutako EJK-ko 11.4 ataleko hirugarren puntuan "in fine" ezarritako salbuespenari.

9.- Baina, gainera, kasu honetan ez dago inolako zuzeneko harreman materialik interesduna —lehendik— aditu den zientzia- eta jakintza-esparruaren eta Eusko Jaurlaritzako zuzendari gisa

esleitu zaizkion funtzio administratiboen artean, eta, beraz, betetzen da EJK-k ezarritako baldintza goi-kargu izatearen eta titularrak egin nahi duen jarduera akademikoaren artean batere zerikusirik ez izateari buruz, kasu honetan jarduera akademiko horrek ez duelako inolako zerikusirik Eusko Jaurlaritzako (...) Zuzendaritzaren eduki objektiboekin.

10.- EJK-ko 11.4 atalak sistematikoki begiesten ditu "Onestasanari, desinteres subjektiboari eta kargu publikodunen interes-gatazkak saihesteari lotutako jokabideak eta portaerak". Arauak zuzentasunaren balioa eta onestasanaren printzipioa babestu nahi ditu, baita, neurri batean, eredugarritasunaren printzipioa ere.

EPB honen iritziz, interesdunak azaldutako jarduera akademiko hori egiteak ez ditu ukitzen ez aipatutako balio eta printzipioak eta ezta EJK-k debekatutako jokabideak ere, kontuan izanik, aurreko puntuetan esandakoaz gain, jarduera hori neurritz eta arrazoiz egingo dela ordutegiari eta ordu-kopuruari dagokienez. Alde horretatik, interesdunak berak adierazten duenez, kontsultagai den jarduera akademikoa "inolako kontratu-loturarik –ez merkataritzakorik, ez lanekorik, ez bestelakorik- gabe, eta, beraz, inolako ordutegi-loturarik gabe" egingo da, eta, hortaz, ez du ukituko edo oztopatuko bere ohiko lanaldia eta ezta kargu publikoari eman beharreko dedikazioa ere.

11.- Horren ondorioz, bidezkoa da interesdunak "diruzko edo gauzako ordainak" jaso ahal izatea hitzaldiak emateagatik edo eztabaida, liburu, aldizkari zein bestelako argitalpenetan parte hartzeagatik, betiere EJK urratu gabe eta, bereziki, menostu gabe "Onestasanari, desinteres subjektiboari eta jarduera pribatuak edo publikoak dituzten kargu publikodunek kargua bete bitartean izan ditzaketen interes-gatazkak saihesteari lotutako jokabideak eta portaerak". Kasu honetan eredugarritasunari edo beste adierazpen batzuei buruzko jokabideak (15. atala) ere ez lirateke ukituko.

Horrez gainera, jakina, interesdunak bidezkoa edo arrazoizkoa denaren esparruan eutsi beharko die beti jarduera horiei, ekintza akademikoetara edo ekoizpen zientifikora bideratutako dedikazioak ez ditzan ordeztu edo baztertu karguari berez lotutako eginkizunak, eta ez diezaion kalterik egin, etengabe edo noizean behin, arduradun publiko batek bere lanaldian bermatu behar duen dedikazio esklusiboari.

12.- Kontsultagai den auzian, bestalde, pentsa liteke sorkuntza "zientifiko eta tekniko" ere egiten dela, interesdunak kolaboratzen duelako lehen aipatutako kolektibo horien prestakuntzarako DVDak sortzen eta paperezko argitalpenak prestatzen.

Sorkuntza-lana, 3/2013 Erabakian adierazi genuen bezala, ez litzateke sartuko EJK-ko 11.4 atalaren esparruan. Berez, Kode horretako 15. atalean sartuko litzateke, honela xedatzen baitu: "Betetzen duten karguaren ondorioz liburuetan, aldizkarietan, egunkarietan eta beste edozein hedabidetan ekarpenak egiteagatik ez dute inolako ordainketarik onartu behar, baldin eta ekarpen horiek funtzioak betetzeari lotuta badaude".

Baina, debeku horren eragina goi-karguduna izatearen ondorio zuzen eta bistako gisa – kausazko lotura bat dela medio– liburu, aldizkari eta abarretan egindako ekarpenetara soilik mugatzen da, ekarpen horietan iritzi instituzional bat adieraziko litzatekeelako; baina ez kargua betetzearekin zerikusirik ez duten izaera akademiko edo profesionaleko ekarpenak badira. Azken mota horretako ekarpenak beti babestuko ditu Espainiako Konstituzioko 20.1.b) artikuluan zehaztutako oinarritzko eskubideak. Areago aztergai dugun kasuan, izan ere, kargudun izan aurretik irabazitako ospe profesionala eta gai horiei buruz aitortu zaion aditu-izaera direla medio eskatzen baitzaio aipatutako ikastaroetan parte hartzeko. Horrelako kasuetan Eusko Jaurlaritzaren irudi instituzionalari ez zaio kalterik egiten. Badago bistako eta berezko mugaketa bat, ordea: mota horretako kolaborazio profesionalak goi-kargudun gisa ematen duen zerbitzu publikoko orduetatik kanpo gauzatu behar direla, betiere.

Hori guztia aintzat hartuta, hauxe da EPBk hartutako

ERABAKIA

Interesdunak **ez du urratuko EJK ordainsaria jasotzea onartzen badu** (...)ri buruzko prestakuntza-saioak emateagatik eta, kasua denean, gai berari buruzko DVDak eta bestelako material akademiko edo irakaskuntzakoak egiteagatik, betetzen duen zuzendari kargu publikoarekin inolako zerikusirik ez duten jarduerak direlako.

Etika Publikorako Batzordea

Gasteiz, 2014ko uztailaren a